



# **GOBERNU BILERA**

**Prentsa-Txostena  
Erabaki nagusiak**

## **CONSEJO DE GOBIERNO**

**Dossier de Prensa  
Acuerdos destacados**

**Vitoria-Gasteiz, 2023ko maiatzak 23**

**Vitoria-Gasteiz, 23 de mayo de 2023**

## Lehendakaritza

### **EUSKO JAURLARITZAK 1,7 MILIOI EURO BIDERATUKO DITU GAZTE-ERAKUNDEAK BABESTEKO ETA INDARTZEKO**

- **Lehenengo deialdia gaur onartu da, eta gazte-elkarteei zuzenduta dago, 800.000 euroko aurrekontuarekin**
- **Deialdia 120.000 euro handitu da, gazte-elkarteei laguntzeko**
- **Elkarte horiek haurrak, nerabeak eta gazteak sozializatzen, gizarteratzen eta balioetan trebatzen laguntzen dute**
- **Gazte-erakundeek zailtasunak dituzte erreleborik eta programak garatzeko boluntariorik ez dutelako**
- **Laster onartuko dira gazteen mugikortasunerako jardueren deialdiak eta diagnostikoa eta emantzipazioa bultzatzeko planak**

Eusko Jaurlaritzako Gazteria Zuzendaritzak 1,2 milioi euro erabiliko ditu gazteriaren arloan programak eta jarduerak garatzeko eta gazteen emantzipazioa bultzatzeko.

Laguntza horiek banatzeko, hiru deialdi egingo dira: gazteriaren arloko programa eta jarduerena, 800.000 euroko aurrekontuarekin; gazteen mugikortasunera edo elkartrukera bideratutako jarduerena, 145.000 euroekin; eta gazteen emantzipazio-prozesua bultzatzea helburu duten toki-mailako ekimenak egiteko laguntzena, 300.000 euroekin.

Lehenengo deialdia Jaurlaritzaren Kontseiluak onartu du gaur, eta gazteen asoziazionismoa sustatzera eta elkarten funtzionamendua eta jarduerak laguntzera bideratuta dago.

Eremu horren barruan sartzen dira Euskadiko gazteen bizi-kalitatea sustatzeko eta hobetzeko gazteen elkarte edo erakundeek bultzatutako lurraldez gaindiko jardueren urteko programak, animazio soziokulturaleko eskolek antolatutako dinamizatzaile soziokulturalen ikastaroak eta izaera berritzailea edo inpaktu soziala duten jarduerak.

Aurtengo deialdiak 800.000 euroko aurrekontua du guztira, eta 120.000 euro handitu da aurreko urteko deialdiarekin alderatuta. 2022ko ekitaldian, Gazteria Zuzendaritzak, deialdi horren barruan, 59 dirulaguntza eman zituen, guztira 679.259 eurokoak.

Gehikuntza hori aurreikusita dago *Aisialdiko hezkuntza bultzatzeko 2030 Euskal Estrategian*, eta gazteen esparruan lan egiten duten elkarteek beren egiturei eusteko dituzten bereziko zailtasun egoerari erantzun nahi dio.

Gazteek gizartean modu aktiboan parte hartzeko dituzten ohituretan gertatzen ari diren aldaketek eragina dute elkarte horietako langileen eta boluntarioen erreleboan.

Eskabideak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, deialdia EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

### **Gazte-erakundeak babestea eta indartzea**

Dirulaguntzen hiru deialdi horiez gain, beste jarduera batzuk ere ari dira bultzatzen, gazteen elkarteak, bereziki aisialdiko hezkuntzakoak, laguntzeko eta indartzeko.

Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak (EGK) eta Astialdi Sareak elkarrekin diseinatutako hezkuntza-aisialdiko taldeei laguntzeko sistema hedatzen ari da. Euskadiko Gazteriaren Kontseiluaren (EGK) dirulaguntza 80.000 euro handitu da, 250.000 euro guztira, eta Astialdi Sareari 180.000 euroko dirulaguntza eman zaio.

Era berean, 75.000 euro bideratuko dira gazte-elkarte horiek gizartea egituratzeko egiten duten lana azpimarratzeko, eta beren ingurunean bizitza soziala, kulturala eta ludikoa dinamizatzen laguntzeko.

Jarduera horiek guztiak, 1,7 euroko guztizko zenbatekoarekin, aisialdiko hezkuntza sustatzeko 2030erako Euskal Estrategiaren barruan kokatzen dira, eta laguntza handia emango diete gazteriaren esparruan jarduten duten irabazi-asmorik gabeko erakundeei.

### **Gazte-elkarteek gizarteari egindako ekarpena**

Laguntza-deialdi horrek laguntza handia emango die gazteriaren alorrean jarduten duten irabazi-asmorik gabeko erakundeei, eta, bereziki, gazte-elkarteei.

Asoziazionismo-modu horrek aukera ematen die gazteei gizartean aktiboki parte hartzen has daitezen eta erantzukizunak har ditzaten, antolaketa- eta kudeaketa-lanak eta abar eginez; eta, aldi berean, balio eta jarrera demokratiko eta parte-hartzaileetan oinarritutako hezkuntza jasotzen dute.

Eusko Jaurlaritzak beste behin ere nabarmendu nahi du gazte-elkarte horiek gizartea egituratzeko egiten duten lana, beren inguruko bizitza soziala, kulturala eta ludikoa dinamizatzen laguntzen baitute.

## Segurtasuna

### **EUSKO JAURLARITZAK ETA ARABAKO, BIZKAIKO ETA GIPUZKOAKO FARMAZIALARIEN ELKARGOEN HITZARMEN BAT SINATU DUTE ERTZAIN-ETXEETAN SENDAGAIEN KUDEAKETA ERRAZTEKO**

- **Helburua da Ertzaintzaren bulegoetan atxilotutako pertsonen osasuna eta ongizatea bermatzea eta sendagai horien horniduraren kudeaketa administratiboa erraztea**

Jaurlaritzaren Kontseiluak Eusko Jaurlaritzaren (Segurtasun Sailaren bitartez) eta Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Farmazialarien Elkargoen arteko lankidetzaz hitzarmen berri bat sinatzeko baimena ematea erabaki du gaur, Ertzaintzaren bulegoetan atxilotutako pertsonen sendagaiak eta beharrezkoak diren beste farmazia-produktu batzuk emateko administrazio-kudeaketak errazteko.

Poliziaren zaintzapean dauden pertsonen osasuna eta ongizatea bermatzeko interes komunaren barruan sartzen da hitzarmena, eta euskal lurraldeko farmazietan farmazia-produktuak banatzeko, fakturatzeko eta kobratzeko arauak eta prozedurak ezartzen ditu.

Ertzaintzak atxilotuei zuzendutako berariazko formularioen bidez eskatuko ditu sendagaiak eta bestelako farmazia-produktuak. Formulario horiek farmazietako langileek jasoko dituzte, sendagaiaren edo produktuaren kodearekin, publikoarentzako salmenta-prezioarekin eta Ertzaintzak ordaindu beharreko zenbatekoarekin, eskatutako medikazioa behar bezala emango dela bermatzeko eta, ondoren, Segurtasun Sailaren eta farmazialarien elkargoen artean administrazio-kudeaketa egingo dela bermatzeko.

Preskripzioa behar duten produktuen kasuan, formularioekin batera kasuan kasuko aginduak aurkeztu beharko dira e-errezetan edo paperean, behar bezala beteta.

Hitzarmena betetzen dela bermatzeko, Jarraipen Batzorde bat sortu da, farmazialarien elkargoetako eta Segurtasun Saileko ordezkariak osatua, ezarritako helburuak lortzeko beharrezko koordinazioa sustatzeko.

## Lana eta Enplegua

### GOBERNU KONTSEILUAK GIZARTE-EKONOMIA SUSTATZEKO 835.000 EUROKO LAGUNTZAK ONARTU DITU

Gobernu Kontseiluak, Idoia Mendia Lehendakariorde eta Lan eta Enplegu sailburuak proposatuta, 835.000 euroko hainbat laguntza-agindu onartu ditu gaur, Gizarte-Ekonomia sustatzeko, enpresen eta erakundeen elkarte-egiturak finkatuz eta Enpresen Gizarte Erantzukizuna zabalduz.

Lehenik eta behin, 685.800 euroko deialdia onartu da, Euskal Autonomia Erkidegoko **gizarte-ekonomiako enpresen eta entitateen elkarte-egiturak finkatzeko**, baldin eta, nortasun juridiko propioa izanik, haien interes amankomunak ordezkatzeko eta defendatzeko: lan-sozietateak eta lan elkartuko kooperatibak; lan elkartukoak ez diren kooperatibak, izaera konfederaleko elkarteak eta gizarte-ekonomiako entitateen integrazio-erakundeak; ekonomia solidarioko elkarteak eta enplegu-zentro berezietako elkarteak; eta gutxienez bi urteko antzinatasuna duten langile autonomoen sektorearteko erakundeak.

Bestalde, Kontseiluak argi berdea eman dio Euskal Autonomia Erkidegoko enpresetan **Enpresen Gizarte Erantzukizuna hedatzeko eta ezartzeko** laguntzen deialdiari. 150.000 euroko zuzkiduraz hornituta, laguntzak bideratuko dira EGEaren ezarpena finantzatzera, jasangarritasun-memoriak eginez; Garapen Jasangarriaren Helburuei (GJH) egindako ekarpenaren diagnostikoa egitera, bai gizarte-ekonomiako enpresetan, bai bestelakoak direnetan, bai eta eremu publikoetan, enpresarialetan eta korporatiboetan Enpresen Gizarte Erantzukizunaren kultura hedatzeko jardueretarako ere.

## Ekonomiaren Garapena, Jasangarritasuna eta Ingurumena

### **EUSKO JAURLARITZAK 105.000 EURO BIDERATUKO DITU ITSASORATU PROGRAMARA, IKASLEEI ARRANTZA-ONTZIETAN PRESTAKUNTZA-EGONALDIAK ERRAZTEKO**

- **Laguntza horiei esker, itsas-arrantzako heziketa-zikloetako ikasleak sektorearen errealitatera hurbilduko dira, eta flota gaztetzen lagunduko dute belaunaldi-erreleboa bermatzeko helburuarekin.**
- **2016an ITSASORATU programa abian jarri zenetik, 120 gaztek ontziratzeke eta prestakuntza praktikoa jasotzeko aukera izan dute. Aurten, enpresa onuradun bakoitzak gehienez 2 ikasle sartu ahal izango ditu prestakuntza-egonaldian.**

Eusko Jaurlaritzako Kontseiluak, gaur goizean, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen sailburu Arantxa Tapiaren agindua onetsi du. Agindu horren bidez, ITSASORATU 2023 programa jarri da abian; arrantza-enpresentzako laguntza-programa itsas-arrantzako heziketa-zikloetako ikasleek ontzietan hilabetez ontziratzea eta arrantza-jardueraren egunerokoan prestakuntza praktikoa jasotzea ahalbidetzeko.

2023 ekitaldirako ITSASORATU programak 105.000 euroko zuzkidura du, eta enpresa eskatzaileei ematen zaie, gazteak ontziratzeke aldi bakoitzean sortutako gastuak ordaintzeko.

Laguntza horiek [Euskadi Arrantza eta Akuikulturaren egitasmoaren](#) barruan daude. Plan horren jarduera-ardatz nagusietako bat arrantza-sektorean trebatzea eta prestatzea da, profesionalizazioa bultzatzeko eta euskal flota gaztetzea bermatzeko, eta, horretarako, nautika- eta arrantza-prestakuntzako ikasleak erauzketa-sektorerara hurbiltzea eta benetan ezagutzea errazten du.

2016an abian jarri zenetik, 815.000 euro bideratu dira ITSASORATU programara. Programa horretan 108 enpresek hartu dute parte eta 120 ikaslek prestakuntza-egonaldia egin ahal izan dute arrantza-ontzietan.

### **Prestakuntza-egonaldien ezaugarriak eta diruz lagun daitezkeen kostuak**

Programak diruz laguntzen du itsas-arrantzako heziketa-zikloetako lehen mailako ikasleek arrantza-ontzi batean prestakuntza-egonaldia egitea marea baten baliokide den aldi batean, hau da, 20 edo 30 egun bitartean. Egonaldia EAEn egoitza-portua duten arrantza-ontzietan egingo da, edo Euskadin lan-egoitza duten armadoreen arrantza-ontzietan.

Enpresa onuradun bakoitzak gehienez 2 ikasle sartu ahal izango ditu prestakuntza-egonaldian. Egonaldi hori lehenengo ikasturtearen amaieraren eta hurrengo ikasturtearen hasieraren arteko aldi egingo da.

Ikasleek erdi-mailako edo goi-mailako nautika- eta arrantza-arloko heziketa-zikloetako lehen maila egiten aritu beharko dute CIFP Blas de Lezo LHII, Bermeoko Nautika eta Arrantzako LHII, edo Ondarroako Antiguako Ama Itsas Arrantza Eskolan, eta irakasgai guztiak gaituta izan beharko dituzte.

Honako hauek dira ITSASORATU programaren bidez diruz lagundu daitezkeen gastuak:

- a) Ontziratze-aldi bakoitzean, enpresak ikasle bakoitzari eman behar dion 1.080 euroko haborokina.
- b) Gizarte Segurantzaren alta ematearen ondoriozko gastuak.
- c) Ontziko ikasle bakoitzaren tutoretzaren, monitorizazioaren eta mantenuaren ondoriozko gastuak. Ontziratutako pertsona emakumea izatea sustatuko da, eta, horretarako 1.000 euro gehiago emango dira.
- d) Ekipoen eta laneko arroparen gastuak.

Enpresa onuradunak praktiketako ikaslearen jarraipena eta tutoretza egin beharko ditu, behar duen laguntza emateaz gain, eta prestakuntza-jarduera behar bezala garatzeko beharrezkoak diren bitartekoak, tresnak edo ekipoak erabiltzen lagundu beharko dio.

### **Eskabideak aurkezteko epea**

Eskabideak aurkezteko epea agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera irekiko da, eta hilabetekoa izango da. Eskabide-inprimakiak eta deialdiari buruzko informazio guztia webgune honetan egongo dira eskuragarri: [www.euskadi.eus/servicios/1051106](http://www.euskadi.eus/servicios/1051106).

## Ekonomiaren Garapena, Jasangarritasuna eta Ingurumena

### **EUSKADIKO NEKAZARITZA-USTIATEGIETAKO SASOIKAKO LANGILEENTZAKO ETXEBIZITZAK EROSTEKO EDO HOBETZEKO 80.000 EUROKO LAGUNTZAK ONETSI DIRA**

- **Laguntza hauek sasoiko langileentzako etxebizitzek behar adina plaza dituztela eta bizigarritasun- eta duintasun-baldintzak betetzen dituztela bermatzeko ematen dira, haien gizarteratzea errazteko, Euskal Autonomia Erkidegoan dauden bitartean**
- **Euskadik 137 higiezin ditu sasoikako langileentzako ostatuen erregistroan alta emanda, 1.409 pertsonentzako edukierarekin**

Eusko Jaurlaritzako Kontseiluak, gaur egindako bileran, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen sailburu Arantxa Tapiaren agindua onetsi du. Agindu horren bidez, nekazaritzako sektorean lan egiten duten sasoikako langileentzako ostatu izango diren higiezinak sortzeko, egokitze edo ekipatzen laguntzak deitzen dira.

Laguntza horiek [Sasoikako Lanaren Arretarako 2022-2024 V. Plan Integralaren](#) barruan daude. Plan horren helburua da Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritza-ustiategietan sasoikako zerbitzuak ematen dituzten langileen kontratazioa eta ostatua modu koherentean eta koordinatuan planifikatzea, lanean ari diren bitartean pertsona horientzat baldintza duinak bermatzeko. Laguntza horien bidez, ostatu gisa erabiltzen diren higiezinak eskatutako gutxienezko baldintzak betetzea lortu nahi da, bai eta bizigarritasun- eta duintasun-baldintza egokiak dituzten behar adina plaza izatea ere.

Horretarako, 80.000 euro emango dira guztira, eta 2023an egindako inbertsioak edo gastuak lagunduko dira diruz. Besteak beste, honako jarduera hauek:

- Sasoikako langileen ostaturako higiezinak eraikitzea edo erostea. Dirulaguntza-ildo horretarako gehieneko zenbatekoa 20.000 eurokoa da.
- Sasoikako langileen ostaturako ondasun-higiezinak birgaitzea, eraberritzea edo egokitzea (sasoikako langileak hartzeko [higiezinaren erregistroan](#) izena emanda egon daiteke edo, egokitu ondoren, inskribatu ahal izango dira).
- Arkitekturako, ingeniartzako edo beste adar tekniko bateko profesionalen ordainsarien gastuak, higiezinak eraberritzeko edo egokitze inbertsioekin edo gastuekin lotutakoak, gehenez ere, diruz lagundu daitekeen kostuaren % 10eraino.
- Altzariak eta ekipamendua.

Laguntzen zenbateko zehatza zehazteko, irizpide objektiboak hartuko dira kontuan, hala nola higiezinaren kokapena, lehentasuna emango zaie zaurgarritasun-maila handiko eremuei eta eskualdeei (esaterako, Arabako



Errioxa, Lautada eta Arabako Mendialdea); sustatzailea Sasoikako Lanaren Arretarako V. Plan Integralean ezarritako nekazaritzako sasoikako lan-programari atxikita egotea edo ustiategiaren titularra edo kotitularra emakumezkoa izatea; eta ostaturako plazen batez besteko kopurua eta kostua.

### **Eskabideak aurkezteko epea**

Eskabideak aurkezteko epea agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean irekiko da, eta funtsak erabat agortzen direnean amaituko da, edo 2023ko azaroaren 15era arte.

Eskabide-inprimakiak eta deialdiari buruzko informazio guztia eskuragarri egongo dira webgune honetan: [www.euskadi.eus/servicios/1013810](http://www.euskadi.eus/servicios/1013810).

## Hezkuntza

### **HEZKUNTZA SAILAK 2 MILIOI EUROAN HANDITU DU 2022-2023 IKASTURTAEAN UNIBERTSITATEZ BESTEKO BEKETARA ZUZENDURIKO DIRU KOPURUA**

Gobernu Kontseiluak gaurko bileran onartu du, Hezkuntza sailburuak proposatuta, unibertsitateaz kanpoko ikasleak eskolatzeko ikasketa-beka eta laguntzen deialdia 2 milioi euroan handitzea, 2022-2023 ikasturte honetarako. Gehikuntza hau beharrezkoa da beka jasotzeko baldintzak betetzen dituzten eskatzaile guztiei erantzuna emateko, bai eta dirulaguntza aldatu zaien eskaerei edo oraindik ebatzi gabe dauden errekurtsioei erantzuteko ere. Ikasturte honetan eta orain artean, Hezkuntza Sailak 113.844 beka-eskabideren aldeko ebazpena eman du.

2022-2023 ikasturterako beken deialdia 2022ko ekainaren 22an onartu zen, 62,5 milioi euroko zenbatekoarekin. Deialdia arautzen duen Aginduak berak jasotzen du zenbateko hori handitzeko aukera, baldintzak betetzen dituzten familia guztiek laguntza ekonomikoa lortuko dutela bermatzeko helburuz. Era horretan, bermatuta geratzen da ikasle guztiek hezkuntza jasotzeko aukera berdinak izatea, familiaren egoera ekonomikoa zailtasun erantsia izan gabe.

Gaur onarturiko gehikuntzarekin, ikasturte honetarako beka deialdiaren diru-kopuru osoa 72.556.823 eurokoa izango da. Izan ere, aurretiaz (2022ko abenduan), Hezkuntza Sailak beste 8.056.823 euro gehitu zizkion deialdiari. Abenduko gehikuntza horren xedea izan zen derrigorrezko hezkuntzaren ondorengo etapetan (Batxilergoan eta Lanbide Heziketan) ikasten dabiltzan eta bekaren onuradun diren ikasleek 400 euroko laguntza osagarria jaso ahal izatea.

## Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politikak

### **ERAKUNDE EBANJELIKOEN FEDERAZIOAREKIN JUSTIZIA-HITZARMEN BAT SINATZEAK PRESOEN ASISTENTZIA ERLIJIOSORAKO ESKUBIDE ERAGINKORRA BERMATUKO DU**

Nerea Melgosa Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburuak proposatuta, Gobernu Kontseiluak baimena eman du Erakunde Erlijioso Ebanjelikoen Federazioarekin (Ferede) lankidetzaz hitzarmen bat sinatzeko, EAEko espetxeetan barneratuta dauden pertsonen asistentzia erlijioso ebanjelikorako duten eskubidea eraginkor egiteko.

Hitzarmen hori Espetxeari buruzko Lege Orokorrean sartzen da. Haren arauketak honako hau ezartzen du: “espetxeetako barneratu guztiek eskubidea dute erregistratutako aitortza erlijiosora jotzeko eta asistentzia eskatzeko, betiere hura ematean gainerako pertsonen eskubideak bermatzen badira”.

EAEan, presoan askatasun erlijioso bermatzeko eta hura baliatzeko baliabideetarako bide emateko erantzukizuna Eusko Jaurlaritzak du, 2021ean espetxeen eskumena bere gain hartu ondoren.

Gaur Gobernuak onartu duen hitzarmenarekin bat etorritik, “EAEko espetxe-administrazioak konpromisoa hartzen du asistentzia erlijioso ematearekin zeharka lotuta dauden laguntza-jarduerak diruz laguntzeko, ekitaldi bakoitzeko aurrekontu orokorrean xedatutakoaren barruan, betiere kulturako edo fedea hedatzeko gastuak, erritu-zerbitzuak edo instrukzio erlijiosoak ez badira eta asistentzia erlijioso ebanjelikoaren eskatzaile eta hartzaile kopurua espetxe berean hamar edo handiago bada”. Hori horrela, Eusko Jaurlaritzaren 2023ko aurrekontuek 27.000 euroko partida aurreikusten dute Espainiako Eliza Ebanjelikoen Federaziorako.

Bestalde, Erakunde Ebanjelikoen Federazioak konpromisoa hartu du “asistentzia erlijioso ebanjelikoa emateko, banaka eta taldeka, horretarako espetxeak gaitzen dituen lekuetan”. Era berean, barneratu batek Federeko eliza bateko kultu-ministro baten asistentzia bakarka jasotzeko eskatzen duenean, artzain horrekin batera espetxera Federazioak izendatzen duen kultu-ministro arduradunak joan beharko du, dagokion espetxearekin koordinazio-lanak egiteko.

Hitzarmenak dakarrenaren arabera, 4 urteko indarraldia izango du, eta asistentzia erlijiosoak dakartzan gastuak Federekin kargura izango dira; hala ere, dagokion zentroan xede horretarako dauden lokalak erabiliko dira.

#### **Beste hitzarmen batzuk**

Federerena ez da EAEko administrazioak barneratuen askatasun erlijioso eta asistentzia erlijioso baliatzeko eremuan sinatu duen hitzarmen bakarra; izan ere, akordioak ditu, era berean, Gotzain Konferentzia Katolikoarekin eta Komisio Islamiarrarekin. Horren harira, aurtengo aurrekontu-ekitaldiak 5.000

euroko laguntzak aurreikusten ditu Komisio Islamiarrarentzat eta 60.000 eurokoak, Gotzain Konferentziarentzat.

## **Kultura eta Hizkuntza Politika**

### **EUSKO JAURLARITZAK BERRETSI EGIN DU GASTEIZKO PRINCIPAL ANTZOKIA 12 MILIOI EUROREN BIDEZ ERABERRITZEKO ETA HANDITZEKO AUKERA EMANGO DUEN HITZARMENA**

Gobernu Kontseiluak onartu egin du Arabako Foru Aldundiarekin eta Gasteizko Udalarekin sinatutako lankidetzeta-hitzarmenari, Arabako hiriburuko Principal Antzokia eraberritu eta handitzeko. Aurreikusitako kostua 12 milioi eurokoa da 2023-2026 aldirako. Hitzarmen honi esker, antzokia modernizatu ahal izango da, hiria aukera eszeniko handiagoez hornitzeko eta leku seguruagoa, irisgarriagoa eta erosoagoa bihurtzeko.

Eusko Jaurlaritzaren ustez, proiektu hau Gasteizko kultura-eskaintza handitzen eta hobetzen jarraitzeko aukera bat da. Honek balio erantsia emango dio euskal gizarteari, eta hiriaren esparru sozioekonomikoan ere eragina izango du. Espazio modernoa, gaitasun eszeniko handiagoa eta irisgarria izateak hiriaren bihotzean kultura biziberritzen lagunduko du, artistentzat, Euskadiko kultura-industriarentzat eta euskal gizartearentzat oro har.

Gobernu Batzordeak gaur onartu duen hitzarmenak Principal Antzokia proiektua gauzatzeko Eusko Jaurlaritzaren, Arabako Foru Aldundiaren eta Gasteizko Udalaren arteko lankidetzeta administratibo, finantzario eta teknikorako formulak ezartzen ditu. Aurreikusitako kostua 12 milioi eurokoa da, eta, gainera, instalazio eszeniko berrien eta lokal erantsiaren erosketaren kostua aurreikusten du, etorkizunean eranskin batean jasoko direnak.

12 milioiak % 40an (4.800.000 euro) finantzatuko dituzte Eusko Jaurlaritzak eta % 30ean (3.600.000 euro), hurrenez hurren, Aldundiak eta Gasteizko Udalak. Azken hori, Gasteizko Udala, arduratuko da proiektua lizitatzeaz, zuzentzeaz eta obrak gauzatzeez.

Era berean, lankidetzeta-hitzarmenak jarraipen-batzorde bat sortzea jasotzen du. Batzorde hori sei pertsonak osatuko dute (bi erakunde bakoitzeko), eta urtean behin bildu beharko da gutxienez, lanen bilakaera aztertzeko.

### **Proiektuaren ezaugarriak**

Antzokia eraberritzeko eta handitzeko hainbat hobekuntza egingo dira, irisgarritasuna, segurtasuna eta erosotasuna hobetzeko, egungo itxura errespetatuz. Eszenatoki berri bat aurreikusten da, hondo zabalagoa izango duena, orratzaren eta banbalinen arteko espazioaren altuera handituko duena, baita pezoia ere.

Antzokiaren barrualdea eraitsi egingo da, eta 842 eserlekuko edukierarekin (19, mugikortasun urriko pertsonentzat) eta egungo estetikari eutsiz eraikiko da. Bestalde, gaur egungo fatxadaren zabalera izango duen antzokiko sarrera eguneratuko da. Eraberritzeak hall nagusiari eta gainerako gelei argitasun handiagoa ematea bilatuko du.

Zaharberritzeak, gainera, aukera emango du erabilera anitzeko areto bat egokitzeko, eskaintza eszenikoa zabaltzeko, formatu txikiko emanaldiekin. Era berean, modu integralean eraberrituko dira kamerinoen eraikina eta sartzeko kaia, eta bulego teknikoaren gune zabal bat eta prentsa-areto bat eraikiko dira.

Antzoki Zaharra eraberritzeko eta handitzeko diseinuak energia-eraginkortasun handiko estandarrak izango ditu.

## Kultura eta Hizkuntza Politika

### **EUSKO JAURLARITZAK BERRETSI EGIN DU GASTEIZKO PRINCIPAL ANTZOKIA 12 MILIOI EUROREN BIDEZ ERABERRITZEKO ETA HANDITZEKO AUKERA EMANGO DUEN HITZARMENA**

Gobernu Kontseiluak onartu egin du Arabako Foru Aldundiarekin eta Gasteizko Udalarekin sinatutako lankidetza-hitzarmenari, Arabako hiriburuko Principal Antzokia eraberritu eta handitzeko. Aurreikusitako kostua 12 milioi eurokoa da 2023-2026 aldirako. Hitzarmen honi esker, antzokia modernizatu ahal izango da, hiria aukera eszeniko handiagoz hornitzeko eta leku seguruagoa, irisgarriagoa eta erosoagoa bihurtzeko.

Eusko Jaurlaritzaren ustez, proiektu hau Gasteizko kultura-eskaintza handitzen eta hobetzen jarraitzeko aukera bat da. Honek balio erantsia emango dio euskal gizarteari, eta hiriaren esparru sozioekonomikoan ere eragina izango du. Espazio modernoa, gaitasun eszeniko handiagoa eta irisgarria izateak hiriaren bihotzean kultura biziberritzen lagunduko du, artistentzat, Euskadiko kultura-industriarentzat eta euskal gizartearentzat oro har.

Gobernu Batzordeak gaur onartu duen hitzarmenak Principal Antzokia proiektua gauzatzeko Eusko Jaurlaritzaren, Arabako Foru Aldundiaren eta Gasteizko Udalaren arteko lankidetza administratibo, finantzario eta teknikorako formulak ezartzen ditu. Aurreikusitako kostua 12 milioi eurokoa da, eta, gainera, instalazio eszeniko berrien eta lokal erantsiaren erosketaren kostua aurreikusten du, etorkizunean eranskin batean jasoko direnak.

12 milioiak % 40an (4.800.000 euro) finantzatuko dituzte Eusko Jaurlaritzak eta % 30ean (3.600.000 euro), hurrenez hurren, Aldundiak eta Gasteizko Udalak. Azken hori, Gasteizko Udala, arduratuko da proiektua lizitatzeaz, zuzentzeaz eta obrak gauzatzeaz.

Era berean, lankidetza-hitzarmenak jarraipen-batzorde bat sortzea jasotzen du. Batzorde hori sei pertsonak osatuko dute (bi erakunde bakoitzeko), eta urtean behin bildu beharko da gutxienez, lanen bilakaera aztertzeko.

### **Proiektuaren ezaugarriak**

Antzokia eraberritzeko eta handitzeko hainbat hobekuntza egingo dira, irisgarritasuna, segurtasuna eta erosotasuna hobetzeko, egungo itxura errespetatuz. Eszenatoki berri bat aurreikusten da, hondo zabalagoa izango duena, orratzaren eta banbalinen arteko espazioaren altuera handituko duena, baita pezoia ere.

Antzokiaren barrualdea eraitsi egingo da, eta 842 eserlekuko edukierarekin (19, mugikortasun urriko pertsonentzat) eta egungo estetikari eutsiz eraikiko da.

Bestalde, gaur egungo fatxadaren zabalera izango duen antzokiko sarrera eguneratuko da. Eraberritzeak hall nagusiari eta gainerako gelei argitasun handiagoa ematea bilatuko du.

Zaharberitzeak, gainera, aukera emango du erabilera anitzeko areto bat egokitzeko, eskaintza eszenikoa zabaltzeko, formatu txikiko emanaldiekin. Era berean, modu integralean eraberrituko dira kamerinoen eraikina eta sartzeko kaia, eta bulego teknikoen gunen zabal bat eta prentsa-areto bat eraikiko dira.

Antzoki Zaharra eraberritzeko eta handitzeko diseinuak energia-eraginkortasun handiko estandarrak izango ditu.

## Kultura eta Hizkuntza Politika

### **EUSKO JAURLARITZAK 150.000 EURO BIDERATUKO DITU ITSAS KULTURA-ONDAREARI BALIOA EMATEKO DIRU-LAGUNTZETARA**

Gobernu Kontseiluak, gaur, honako diru-laguntza hauek onartu ditu: "Itsas ondarearen esparruan kultura-balioa duten elementuei zuzendutakoak, baldin eta sustapen-, sendotze-, konponketa- eta egokitzapen-jarduerak behar badituzte erabiltzeko, betiere ondasunaren ezaugarrietara egokitzen badira eta esku-hartzearen xede den ondare-balioa nabarmenki gutxiesten ez badute".

Helburua zurezko ontzien jabeei mantentze-lanetan laguntzea da, gure portuetako paisaietan jarraitzeko, eta, orokorrean, Euskadiko ohiko itsaso-kulturaren alde egiteko.

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak 150.000 euroko partida bideratuko du honako jarduera-ildo hauetan sartzen diren proiektuak finantzatzeko:

1. Zurezko ontzietako lanak beti ere beraien musealizatzerako badira (45.000 euro).
2. Jendeari zerbitzua emateko egurrezko ontziak armatu eta prest jartzea (45.000 euro).
3. Lurrezko instalazioen balioa nabarmentzea: ontziolak, lonjak eta portuko elementuak; eta egitura txikiak, hala nola ontziralekuak (25.000 euro).
4. Zurezko ontziak konpontzeko eta egokitzeko gastuak, lizentziak izapidetzeko gastuak, euskal portuetako atrakaleku egonkorren gastuak eta ontziak nabigatzeko dituen baimenak barne (20.000 euro).
5. Elkarte edo erakunde publiko edo pribatuek zurezko itsas kultura-ondarearen balioa nabarmentzeko egindako ekitaldiak (15.000 euro).

Diruz lagun daitezkeen proiektuek hasita egon beharko dute edo 2023eko ekitaldian hasi beharko dute, eta, gehienez ere, 2023eko abenduaren 31ra arte gauzatu beharko dira.

Interesdunek hilabeteko epean eskatu beharko dituzte laguntzak, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

2022ko deialdian 25 proiektu lagundu ziren diruz, itsas kultura-ondareari balioa emateko.



## Presidencia

### **EL GOBIERNO VASCO DESTINA 1,7 MILLONES DE EUROS PARA APOYAR Y FORTALECER LAS ENTIDADES JUVENILES**

- **La primera convocatoria se ha aprobado hoy y se dirige a las asociaciones juveniles con un presupuesto de 800.000 euros**
- **Se ha incrementado la convocatoria en 120.000 euros para apoyar a las asociaciones juveniles, que afrontan dificultades por la falta de relevo y personas voluntarias para desarrollar sus programas**
- **Estas asociaciones contribuyen a la socialización, integración social y formación en valores de niños, niñas, adolescentes y jóvenes**
- **Próximamente se aprobarán las convocatorias para actividades de movilidad juvenil, y diagnósticos y planes para favorecer la emancipación**

La Dirección de Juventud del Gobierno Vasco destinará 1,2 millones de euros a ayudas para el desarrollo de programas y actividades en el ámbito de la juventud y a favorecer la emancipación juvenil.

Estas ayudas se distribuirán a través de tres convocatorias: programas y actividades en el ámbito de juventud, con un presupuesto de 800.000 euros; actividades dirigidas a la movilidad o al intercambio juvenil con 145.000 euros; y ayudas para la realización de iniciativas de ámbito local que tengan como objetivo propiciar el proceso de emancipación de las personas jóvenes, a la que se destinan 300.000 euros.

La primera de estas convocatorias, ha sido aprobada hoy por el Consejo de Gobierno y está dirigida a promover el asociacionismo juvenil y apoyar el funcionamiento y las actividades de las asociaciones.

